



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko maiatzaren 29an

38 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

- Errepideko hiriko garraio publikoa arautzen duen Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Iruñerriko bidaiari-garraio publikoari buruzko Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (13. or.).
- Foru Legea, jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzko otsailaren 27ko 2/1997 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (17. or.).

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 136. artikulua aldatzen duena. Osoko Bilkurak bazter utzia (19. or.).

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren jokaera gaitzesten da, zenbait sendagai Gizarte Segurantzatik kanpo uzteari buruzko erabakiak ez betetzeagatik. Osoko Bilkurak baztertua (20. or.).
- Ebazpena. Horren bidez, Foru Komunitateko Gobernuak premiatzen da LORAFNAko 29. artikulua aldatzeko. Osoko Bilkurak onetsia (20. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen da gizarte zerbitzuen alorreko kontzertuak arau ditzan. Osoko Bilkurak baztertua (21. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da zenbait zerga-aldaketa egin dezan. Osoko Bilkurak baztertua (21. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak eskatzen du Itoitz eta Nafarroako Ubideko obrei legezko estaldura emateko bitartekoak martxan jar daitezten. Osoko Bilkurak baztertua (21. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Estatuako Gobernuak premiatzen da “Gutxien hizkuntzei buruzko Europako Gutuna” berrets dezan eta Nafarroako Gobernuak premiatzen da azter dezan Euskarari buruzko Legearen egokitzapena Gutun horrekiko. Osoko Bilkurak baztertua (22. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Administrazio Publikoetako langileen bateraezintasun araubidea aldatzeko Foru Lege proiektu bat bidal dezan. Osoko Bilkurak baztertua (22. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ahalik eta lasterren arau dezan LOGSEk ezarritako batxiler-maila eta lanbide-modulu berrien finantzaketa. Osoko Bilkurak baztertua (22. or.).
- Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiau da zenbait jarduketa burutzeraz, Alzheimer gaixotasunak ukitutakoei arreta orokorra emateko. Osasun Batzordeak onetsia (23. or.).
- Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sendagaien gaur egungo finantzaketa baldintza guztiak berma ditzan. Osasun Batzordeak onetsia (23. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sendagaiei buruz hartutako erabakiak bete ditzan. Osasun Batzordeak baztertua (24. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sendagaiei buruz hartutako erabakiak bete ditzan, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak. Atzera bidalitako mozioa (24. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Errepideko hiriko garraio publikoa arautzen duen Foru Legea

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1998ko maiatzaren 20an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 20.2 artikuluan ezarritakoa betez, errepideko hiriko garraio publikoa arautzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Errepideko hiriko garraio publikoa arautzen duen Foru Legea

ZIOEN AZALPENA

Hiriko garraioari buruzko arautegia ezartzea oso-osorik Nafarroan barna diragaten garraioen arloan Foru Komunitateari ez besteri dagokion eskumena erabiltzearen ondoriozkoa da.

Hala ere, errepideko garraioak hain afera nahasiak dituzenez, beharrezkoa da eskumen hori agintaritzako maila guztiekin zintzotasunez elkarlanean arituz erabiltzea. Hori dela eta, Autonomi Erkidegoek eta Estatuko Administrazioak garraio horren gorabehera komunak aurkeztu dituzte guztien lankidetzaren ondorio gisa, konstituzionaltasun blokeak eta garraioko lanbidedunen beharrek ezarritako eskumen mugapenarekiko begirunez.

Foru Lege honetan hiriko garraioaren alderdi komunak biltzen dira eta arlo horren antolaketa osoan sartzen.

Zehazki, hiriko garraio kontzeptuak erabateko begirunea du toki entitateek arlo horretan dituzten eskumenekin, horrekin bestelako arauzko aurrerarietatik bereiztu arren.

Hala ere, garraio mota guztien ohiko sailkapenei eutsi zaie, pentsatzen baita horrek laguntzen diola garraio sistemaren homogeneotasunari eta,

orobat, zehapen araubidea horrela garraioari buruzko lehengo eta kasuan kasuko legeen parekotasunari atxikitzen zaio.

Azkenik, kontuan hartuz Nafarroako Udaletarako administrazio kontratazioari buruzko arautegia orohar aplikatzekoa dela, garraio zerbitzu publikoen kudeaketaren berezko gorabeherak bakarrik arautzen dira.

I. TITULUA **Xedapen orokorrak**

1. artikulua.

Foru Lege hau Foru Komunitatean diragaten errepideko hiriko garraio publikoei aplikatuko zaie.

Foru Lege honen ondorioetarako,

a) "Errepideko garraioa" da arrotzeko bide finkorik gabe eta energia hartzeko baliabide finkorik gabe dabilzan automobiletan, hiriko edo hiriar-teko lur gaineko edozein bidetan, delarik publikoa, delarik pribatua, egiten dena.

b) "Garraio publikoa" besteren kontu lansariaren truk egiten dena da.

2. artikulua.

Udalak eskudunak dira orohar bidaiarien garraio publikoko hiriko zerbitzuak antolatu, kudeatu, ikuskatu eta zehatzeko. Ondorio horietarako, hiriko zerbitzutat jotzen dira osorik kasuan kasuko udalerrian barna diragatenak.

3. artikulua.

1. Udalek hiriko garraio publikoko zerbitzuei aplika dakiekeen tarifa-araubidea proposatuko diote Foru Komunitateko Administrazioan salneurrien alorrean eskudun den organoari, baime-nen titularrak eta kontsumitzaile eta erabiltzaileak ordezkatzeko dituzten elkarteei entzun ondoren.

2. Hiriko bidaiari-garraio publiko erregularrak, besteak beste, dirusarrera hauen bidez finantzatu-ko dira:

a) Zuzenean zerbitzuen erabiltzaileengandik lorturiko diru-bilketatik eta zerbitzu horiek ematen dituzten enpresen bestelako baliabideen ustiakuntzatik datozenen bidez.

b) Eskudun erakundeek horixe dutela helburu ezar litzaketen zerga-bilketen bidez.

c) Administrazio Publikoek egin litzaketen diru-ekarpenen bidez.

4. artikulua.

1. Errepideko hiriko bidaiari-garraio publikoak erregularrak edo bereziak izan daitezke.

Garraio erregularrak aldeztu aurretik ezarritako ibilbideen barruan, aldeztu aurretik finkaturiko egutegi eta ordutegiei jarraikiz, egiten direnak dira.

Garraio bereziak aldeztu aurretik ezarritako ibilbide, egutegi edo ordutegiei jarraiki gabe egiten direnak dira.

2. Aurreko idazatian aipatzen diren garraio erregularrak honakoak izan daitezke:

a) Jarraipenari dagokionez, finkoak edo aldi baterakoak.

Garraio erregular finkoak behar iraunkorrak betetzeko etenik gabe egiten direnak dira.

Aldi baterako garraio erregularrak salbuespe- nezko edo abaguneko trafikoa burutzea xede dutenak dira, aldi mugatu batez dirautenak. Hala ere, aldian-aldian gerta daitezke, hala nola, azoka eta merkatu egunetan edo antzekoetan.

b) Erabileragatik, erabiltzaile guztientzakoak edo erabilera mugatukoak izan daitezke:

Erabiltzaile guztientzako garraio erregularrak eskari orokorra betetzea xede dutenak dira, inter- resatu orok erabil ditzakeelarik.

Erabilera mugatuko garraio erregularrak erabil- tzaile talde berezi batendako, eskola-ume, langile eta antzeko talde homogeneoendako, kasu, dira.

5. artikulua.

1. Hirigintza osakeragatik, kokaguneagatik edo jende kopuruagatik edo ekonomi eta gizarte ingu- ruabarrengatik garraio sareen artean koordinazio arazoak dituzten Udal batzuen menpe dauden eskualde edo hiri multzoetan, Foru Komunitateko Administrazioak araubide berezia ezartzen ahal- ko du garraio sistema harmonikoa izan dadin bermat- zeko.

2. Aurreko idazatian aurreikusten den helburua entitate publiko bat indarreko antolamenduan aurreikusiriko moduan sortuz lortzen ahal- ko da. Bertan, ukituriko udal edo entitateek hartuko dute parte eta kasuan kasuko eskualdeko garraio zer- bitzuen antolamendu eta kudeaketa bakar- ra auto- nomiaz burutuko du edo delako antolamendu bakar- ra lehenagotik dagoen entitate publikoari esleitzen ahal- ko zaio, baldin eta Konstituzioak Udalei aitortzen dien autonomia behar bezala errespetatuko dela bermatzen bada.

3. Foru Komunitateko Administrazioak aurreko idazatian aipatzen diren udalez gairik entitate- tako gobernu organoetan parte hartzen ahal- ko du, baldin eta haren eskumenak edo haren interesak ukitzen badira.

6. artikulua.

Hiriko bidaiari-garraio zerbitzu publikoa emateko, turismoko ibilgailuetan egiten diren bidaiarien garraio-zerbitzuak direnean izan ezik, eskudun Udalaren aurrean betebeharrak hauek bete- tzen direla frogatu beharko da:

a) Pertsona fisikoa edo juridikoa izatea. Kasu honetan, merkataritzako sozietatea, lan sozietate anonimoa edo lan elkartuko kooperatiba izan beharko du.

b) Espainiako, Europako Batasuneko beste estatu bateko edo, Espainiak izenpeturiko nazio- arteko tratatu edo hitzarmenetan xedaturikoaren arabera, betebeharrak hori ezin eskatu daki- okeen atzerriko beste estatu bateko hiritartasuna izatea.

c) Lanerako gaitasun, izen on eta diru-ahal- men baldintzak, beharrezkoak direnak, frogatzea.

d) Indarra duen legediak ezarri dituen zerga, lan, gizarte eta aseguru eginbeharrak betetzea.

e) Gaitasun-agirien motei buruz espreski ezar- tzen diren kasuan kasuko baldintzak betetzea, hala bada.

II. TITULUA

Bidaiarien garraio publikoa

I. KAPITULUA

Garraio erregularrak

1. sekzioa

Erabiltzaile guztientzako garraio erregular finkoa

7. artikulua.

1. Erabiltzaile guztientzako garraio publiko erregular finkoak udal titulartasuneko zerbitzu

publikoak dira eta kasuan-kasuan ezartzen diren betebeharrak betetzen dituzten hiritar guztiek eskubide berbera dute haiek erabiltzeko.

2. Aurreko idazatian aipatzen diren zerbitzuen kudeaketari dagokionez, Foru Lege honetan eta hori garatzen duten xedapenetan aurreikusten ez den guztian, administrazio kontratazioei buruzko araei jarraikiko zaie.

8. artikulua.

1. Bidaiarien garraioko zerbitzu erregular finkoak Administrazioen ebazpenaren bidez ezarriko dira, non, orobat, zerbitzua emateko proiektua ere onetsiko baita.

2. Udalak onartu eginen du ebazpen hori, bai berak bai partikularrek hala erabakirik, kontuan hartuz garraioak gaur egun duen eta geroan izan lezakeen eskaria, horretarako dauden baliabideak eta ezarpen horrek ukitzen dituen edo hura ukitzen duten gainerako gizarte inguruabarrak ere.

9. artikulua.

Udalek bestelako hiriarteko zerbitzu erregularrek lehenagotik baimenduak dauzkaten trafikoe-kin baterakideak diren zerbitzu erregular finkoak edo aldi baterakoak ezartzeko, frogatu egin beharko da zerbitzua ez dela aski erabiltzaileen beharra egoki betetzeko eta, aldez aurretik, Foru Komunitateko Administrazioak bere oniritzia eman beharko du. Oniritzi hori emateko, bi zerbitzuen ustiakuntza koordinatzeko plana onesteko baldintza ezar lezake. Haren prestakuntzan, hiriarteko zerbitzu erregularren kontzesioaren titularra den enpresari entzun beharko zaio.

Trafiko baterakidetzat joko dira geralekuen artean egiten direnak, horietan hiriarteko zerbitzuak baimena badu bidaiariak hartu eta uzteko, baita geralekuetatik gertu dauden tokietan egiten direnak ere, horiek udalerrri berean ez badaude ere.

10. artikulua.

Erabiltzaile guztientzako zerbitzu erregular finkoak, orohar, administrazio kontzesioa ematen zaion enpresak eginen ditu.

Hala ere, horretarako zioak daudenean, Udalak erabakitzen ahalko du ustiakuntza zerbitzu publikoak kudeatzeko administrazio kontratazioa arautzen duen legedian aurreikusten den beste edozein prozeduraren bidez burutzea.

Lehen aurreikusirikoa galarazi gabe, zerbitzu baten zuzeneko kudeaketa publikoa bidezkoa izanen da zeharkako kudeaketa haren izaerarako egokia ez denean, lortu nahi diren ekonomi edo

gizarte helburuetarako balio ez duenean, edo interes publikoagatik edo ekonomi eta gizarte zio-engatik beharrezkoa denean. Gorabehera horiek gertatzen direnean, Udalak zuzenean ematen ahalko ditu erabiltzaile guztientzako garraio publiko finkoko zerbitzuak. Horiek kudeatzeko enpresen kudeaketa publikoari buruz indarra duen legediak onartzen duen edozein figura erabiliko da.

11. artikulua.

1. Kontzesioak lehiaketa bidez esleituko dira, prozedura irekian.

Lehenagoko kontzesioen mugaeguna betetzen bada ere, modu berean jardunen da.

2. Zerbitzuak emateko proiektuak zuzenbide, ekonomi, teknika eta administrazio baldintzen ple- guaren oinarritako balioko du. Hark oinarritzko zerbitzuak eta osagarriak bilduko ditu, eta ibilbideak, egin daitezkeen trafikoak, geralekuak, tarifa arau- bidea, ibilgailuen gutxieneko kopurua, horiek amortizatzeko gehieneko epea, hala bada, behar diren instalazio finkoak eta zerbitzua zehazten eta haren emanaldia osatzen duten gainerako inguru- abarrak ere bai.

3. Aurreko idazatian aipatzen diren baldintza eta inguruabarrak gutxieneko betebeharrak gisa edo orientazio gisa ezartzen ahalko dira baldintza ple- guetan. Enpresa lehiakideek, ezarriko mugen barruan, halakorik bada, kasuan kasuko pleguko baldintzak zehazten, gehitzen edo aldatzen duten eskaintzak aurkezten ahalko dituzte, baldin eta zerbitzuaren edo haren emanaldiaren funtsezko baldintzak aldatzen ez badira.

12. artikulua.

Kontzesioen iraupena baldintza pleguan eza- rriko da, zerbitzuaren ezaugarri eta beharren ara- bera, ukituriko ondasunak amortizatzeko epeak kontuan hartuko direlarik. Iraupen hori, gutxienez ere, hamar urtekoa izanen da eta, gehienez ere, hogeita bostekoa. Kontzesioa epea bukatzen denean, zerbitzuaren ondorengo emanaldia zehazteko prozedura bukatu baino lehen, kontze- sio-hartzaileak prozedura bukatu arte luzatuko du bere kudeaketa. Behin ere ez da beharturik ego- nen hamabi hilabete baino gehiagoz kudeaketa horretan irautera.

13. artikulua.

1. Lehiaketako baldintza pleguan, behar beza- la ponderaturik eta goitik beherako hurrenkeran, esleipenaren abiapuntutako balio behar duten iriz- pide objektiboak ezarriko dira, hala nola tarifak, ibilgailuen abialdien kopurua, zerbitzua emateko

eskainiriko plazen kopurua, ibilgailuen ezaugarriak, haien aintzintasuna eta bestelako hobe-kuntzak.

2. Beti ere, diru-baldintza ausartegiak ezartzen dituzten eskaintzak, teknikoki egokiak ez direnak, edo behar bezala eta zehazki zerbitzua eta haren jarraipena bermatzen ez dutenak, ezetsi beharko dira.

Eskaintzen ausarkeria administrazio kontratazioari buruzko arautegian ezarritako irizpide objektiboei jarraikiz neurtuko da.

14. artikulua.

1. Zerbitzua kontratuan finkaturiko baldintzetan eman beharko da. Hark baldintza pleguak ezartzen dituenak bilduko ditu, esleipen-hartzaileak eskaini eta Udalak onartzen dituen zehaztapen edo aldaketak barne.

2. Erregelamendu bidez, edo kontratuan berean, zerbitzua hobeki kudeatzeko, enpresak, Udalarari jakinarazirik, askatasunez alda ditzakeen inguruabarrak ezarriko dira. Udalak, interes publikoaren kontrakoak direnean, debekatzen ahalko ditu aldaketa horiek edo erabiliak izateko muga zehatzak ezartzen.

3. Udalak, ofizios edo esleipen-hartzaileek edo erabiltzaileek eskaturik, emanaldiaren baldintzeta-ko aldaketak, kontratuan ez aurreikusiak, onesten ahalko ditu, baita ibilbideen gehitze, gutxitze edo ordezteak ere, zerbitzua hobeki emateko beharrezkoak edo komenigarriak badira. Beti ere, beharurik egonen da kontzesioaren oreka ekonomikoa errespetatzera.

15. artikulua.

1. Justifikatzen duten interes publikoko arrazoi objektiboak daudenean, lehenagotik daudenak ez beste zerbitzu bat ezartzea bideragarria edo bidezkoa ez denean, Udalak, ofizios edo alde batek eskaturik, kontzesioetako oreka ekonomikoa errespetatuz, erabakitzen ahalko du kasuan-kasuan kontzesioa izan duten zerbitzuak bateratzea, haien emanaldia enpresa batasuneko araubidean egin dadin.

Bateraturiko zerbitzuak aurrekoen iraungipena ekarriko duen beste kontzesio baten xede izanen dira. Irauteko epea, artikuluko 3. idazatian aipatzen den kasuan izan ezik, bateratzen diren zerbitzuei dagozkien kontzesioetan dirauten indarraldien eta kasuan kasuko trafikoen arabera finkatuko da. Faktore horiek aplikatzearen ondoriozko epea 100eko 20 gehitzen ahalko da.

2. Bateratu behar diren kontzesioak titular berarenak direnean, bateratzeko erabakiak bera-

rekin ekarriko du bateraturiko kontzesioaren aldeko zuzeneko esleipena.

Zerbitzuak enpresa ezberdinei emaniko kontzesioei dagozkienean, ondoriozko kontzesioaren titulartasun bakar berria zehazteko prozedura arau hauei jarraikiko zaie:

a) Udalak kontzesio-hartzaileak gonbidatuko ditu behar diren transferentziak egitera, kontzesioa titular bakar batek izan dezan. Titular bakarra kontzesio-hartzaileetariko bat edo haiek guztiek edo haietariko batzuek osaturiko elkarteak izan daitezke.

b) Sei hilabeteko epearen barrenean itunik lortzen ez bada, kontzesio-hartzaileen artean lehiaketa bat eginen da, zerbitzu sortu berrietarako aurreikusitako bezala. Bertako gehieneko tarifa bateratzen diren kontzesiorik garestiena izanen da.

3. Kontzesioa aurreko idazatian aurreikusirik prozeduretan esleitzen ez bada, beste lehiaketa bat eginen da, izan litezkeen lehiakideei dagokienez, inolako mugarik gabe, Foru Lege honetan ezarritako baldintza orokorrekin bat.

4. Kontzesio berriaren esleipen-hartzaile gertatzen ez diren aintzinako titularrei ordain bat emanen zaie eraginiko kalteengatik, administrazio kontratazioari buruzko arautegian xedaturikoarekin bat.

16. artikulua.

1. Kontzesioak administrazio kontratazioari buruzko arautegian ezarritako zioengatik iraungiko dira.

2. Halaber, kontzesioak iraungitzeko zioak izanen dira:

a) 27.5 artikuluan aurreikusirik oinarritzko baldintzak ez betetzea.

b) 6. artikuluan aurreikusirik betebeharrak galtzea.

2. sekzioa

Aldi baterako garraio erregularrak

17. artikulua.

1. Aldi baterako bidaiari-garraio erregularizat hartuko dira:

1) Gutxi dirauten aldietan, hala nola, oportuntan, urtaro batean eta aparteko azoka eta erakusketetan etenik gabe ematen direnak.

2) Urtean etenik baina aldi-aldi, hala nola, ohiko merkatu eta azoketan ematen direnak.

2. Aldi baterako zerbitzu erregularrak baino lehen, Udalak, ofizioz edo alde batek eskaturik, haren ezarpenari eta hartarako baldintzei buruz erabakia hartu beharko du. Ezarpena bakar-bakarrik erabakitzen ahalko da, garraio eskariaren aldi baterako edo aparteko izaeragatik, erabiltzaile guztientzako garraio zerbitzua ezartzeko beharra aski den moduan justifikaturik dagoenean, baldin eta gorabehera hauek gertatzen badira:

a) Kasuan kasuko garraio beharrak aski den moduan betetzen ahal dituen erabiltzaile guztientzako zerbitzu erregular finko baterakiderik ez dagoenean.

b) Erabiltzaile guztientzako zerbitzu erregular finko baterakidea badago ere, bi baldintza hauetariko bat gertatzea:

1) Betetzekoak diren garraio beharretarako egokitzeak zerbitzu baterakidea ustiatzeko kasuan kasuko kontzesioan ezarritako baldintzetan funtsezko aldaketa ekartzea.

2) Betetzekoak diren garraio beharrak hain bereziak izatea, ezen komeni baita zerbitzu independente bat ezartzea.

3. Horretarako gaitzen duen administrazio baimen berezia eskuratzen dutenek ez bestek egiten ahalko dituzte aldi baterako garraio erregularrak.

3. sekzioa

Erabilera mugatuko garraio erregularrak

18. artikulua.

1. Erabilera mugatuko bidaiari-garraio erregularrak egiteko, beharrezkoa izanen da aldez aurretik Udalak horretarako emanen duen baimen berezia lortzea.

Baimen hori aldez aurretik erabiltzaileen ordezkariekin garraioa kasuan kasuko kontratu edo aurrekontratuaren bidez hitzartua duten enpresei emanen zaie. Horretarako, zerbitzua emateko behar diren gauzazko baliabideak badauzkala frogatu beharko du.

2. Erabiltzaileen ordezkarietat joko dira, haieko jarrera bereziaren arabera, garraiolariarekiko harremana bere gain hartzen dutenak, hala nola, ikastetxeetan eskudun diren administrazio organoak, ikastetxeen edo ekoizpen zentroen jabe edo zuzendariak, ikasleen gurasoen edo langileen elkarteak ordezkariak eta antzekoak.

3. Baimenetan ustiakuntzarako baldintza bereziak ezarriko dira eta erabiltzaileekiko kontratuak aipatzen duen eperako emanen dira.

II. KAPITULUA

Garraio bereziak

1. sekzioa

Garraio berezia bederatzi eserlekuetik gorako ibilgailuetan

19. artikulua.

Bederatzi eserlekuetik gorako ibilgailuen bidezko hiriko bidaiari-garraio bereziko zerbitzuak emateko, beharrezkoa izanen da horretarako gaitasun-agiria aldez aurretik eskuratzea.

Horretarako dagoen arautegiaren arabera ematen diren hiriz gairiko bidaiari-garraio bereziko baimenek gaitasuna emanen dute haiek dagozkion esparruan hiriko garraioa egiteko.

Udalek gaitasun-baimenak ematen ahalko dituzte garraio berezia bakar-bakarrik hiri barrurako diren eta bederatzi eserlekuetik gorako ibilgailuetan egiteko.

2. sekzioa

Garraio berezia turismoko ibilgailuetan

20. artikulua.

1. Hiriko bidaiari-garraio zerbitzua turismo ibilgailuetan emateko, beharrezkoa da ibilgailuak helbidea dueneko Udalak gaitasun-lizentzia ematea aldez aurretik.

Hiriko garraio zerbitzuak turismoko ibilgailuetan emateko udal lizentziak kategoriatan bakarrek izanen dira eta taxi-lizentziak izena izanen dute.

2. Udal lizentzia horiek emateko, beharrezkoa izanen da, eskudun Udalaren aurrean, betebeharrak hauek betetzen direla frogatzea:

a) Pertsona fisikoa izatea.

b) Espainiako, Europako Batasuneko beste estatu bateko edo, Espainiak izenpeturiko Nazioarteko tratatu edo Hitzarmenetan xedaturikoaren arabera, betebeharrak hori ezin eskatu dakiokkeen atzerriko beste estatu bateko hiritartasuna izatea.

c) Indarra duen legediak ezarri dituen zerga, lan, gizarte eta aseguru eginbeharrak betetzea.

3. Turismoko ibilgailuen bidezko hiriko garraio-rako udal lizentziak eman, erabili, aldatu eta iraungitzeko araubidea, baita zerbitzua emateko ere, Udalek horretarako emanen dituzten arauetara egokituko dira. Udalek Foru Komunitateko Administrazioak ezarritako arauak eutsi beharko dituzte.

Bereziki, Foru Komunitateko Administrazioak xedatzen ahalko du zenbat taxi-lizentzia ematen ahalko diren gehienez ere udalerrri bakoitzean, bertan bizi den jendearen eta bestelako irizpide objektiboen arabera, garraio sistema orokorrak behar bezala jardutea bermatzeko beharrezkotzat jotzen duenean.

21. artikulua.

1. Udal batzuetako garraio zerbitzuen artean harremana edo elkarrenganako eragina dagoenean, zerbitzu horien antolaketa egokiak haietariko bakoitzaren interesa gainditzin baldin badu, Foru Komunitateko Administrazioak Zerbitzuak Elkarrekin Emateko Barrutiak ezartzen ahalko ditu. Horietan behar bezala baimenduriko ibilgailuek eskumena izanen dute edozein zerbitzu emateko, dela hirikoa, dela hiriartekoa, baldin eta oso-osorik Barruti horien barruan burutzen bada, ibilgailuak helbidea dueneko udalerrria gainditzin duenean edo hortik kanpo abiatzen denean ere bai.

2. Zerbitzuak Elkarrekin Emateko Barrutiak ezartzeko, gutxienez ere bertan sartu nahi diren Udalen bi herenen adostasun txostenaren beharra egonen da. Udal horiek, gainera, Barrutiko bizilagunen 100eko 75 bildu beharko dituzte, gutxienez ere.

Prozeduran taxi-lizentzien titularrak ordezkatzin dituzten elkarteei entzunen zaie.

3. Zerbitzuak Elkarrekin Emateko Barrutietan zerbitzuetarako gaitasun-baimenak Foru Administrazioak edo baimenei buruzko arauak izendatzen duten enteak banatuko ditu.

4. Halaber, Foru Komunitateko Administrazioa eskudun izanen da, arautegia orokorrari lotuz, zerbitzua arautu eta antolatzeko behar diren egin-kizunak burutzeko.

III. TITULUA **Zehapen araubidea**

22. artikulua.

1. Errepideko hiriko bidaiari-garraio publikoari buruzko arauak hausteagatik izan litekeen administrazio erantzukizuna hauei dagokie:

a) Administrazio kontzesio, baimen edo lizentziaren xede diren garraio edo jarduerak burutzen ari direlarik eginiko arau-hausteetan, kontzesio, baimen edo lizentziaren titularra den pertsona fisiko edo juridikoari.

b) Behar den administrazio agiriak babestu gabe eginiko garraio edo jarduerak burutzen ari direlarik eginiko arau-hausteetan, jardueraren titu-

larra den pertsona fisiko edo juridikoari, edo ibilgailuaren jabeari.

c) Erabiltzaileek eta, orohar, lehengo idaztatian aipatu ez badira ere, errepideko hiriko bidaiari-garraioa arautzen duen legediak ukituriko jarduerak burutzen dituzten hirugarrenek eginiko arau-hausteetan, hautsiriko agindua dagokion pertsona fisiko edo juridikoari edo kasuan kasuko arauak espreski erantzukizuna eratzikitzen diotenari.

2. Foru Lege honetan aipatzen diren arau-hausteengatik administrazio erantzukizuna eskatuko da, zigor, trafiko edo lan legedia edo aplikatzeakoak diren bestelakoak hausteagatik legokeena deustan galarazi gabe.

3. Administrazio erantzukizuna 1. idaztiak aipatzen dituen pertsona fisiko edo juridikoei eskatuko zaie, egitez arau-hausteak leporatzen ahal zaizkien pertsonen aurka bidezko diren ekin-tzak deustan galarazi gabe.

23. artikulua.

Errepideko hiriko bidaiari-garraio publikoari buruzko arau-hausteak oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke.

24. artikulua.

Arau-hauste oso larritzat joko dira:

a) Garraio publikoak behar den kontzesio, baimen edo lizentzia eduki gabe egitea.

Batera Foru Lege honetan arautzen diren kontzesio, baimen edo lizentziatariko bat beharrezkoa duten zerbitzuen emanaldia idazati honetan tipifikaturiko arau-haustean sartutzat jotzen da, bai bata edo bestea falta dutenean, bai biak falta dituztenean.

Baimena ez edukitzea, aurreko lerroetan xedatua xedatu, arau-hausleak administrazio baimena hartzeko betebeharrak betetzen dituztenean, hots, berak eskura zezakeenean, 26. artikuluko a) letran aurreikusirikoaren arabera zehatuko da.

b) Bidaiari-garraioko zerbitzu erregularrak behar den lizentzia, kontzesio edo baimen bereziaren jabe izan gabe antolatu, ezarri edo burutztea, haiek emateko baliabideak norberarenak edo beste inorenak direlarik ere.

c) Ibilgailuan, ikusgai dagoen toki batean, baimenaren xede ez den garraio mota bateko ezau-garria eramatea.

d) Ikuskaritza zerbitzuen jarduketei uko egitea edo horiek oztopatzea, legez edo erregelamenduz haiei dagozkien eginkizunetan aritzea eragozteko.

Horien artean daude ikuskaritza zerbitzuek edo, eskuordeturik dauzkaten eskumenak erabiliz, zuzenean garraioa zaintzen eta kontrolatzen duten agenteek emaniko aginduei jaramonik ez egitea eta, bereziki, legez aurreikusiriko kasuetan ibilgailuak geldiarazteko aginduak ez betetzea.

e) Beste inoren izenean luzaturiko gaitasun-agiriak erabiltzea. Arau-hauste horren erantzukizuna beste inoren administrazio agiriak darabiltzatenen ez ezik agiriak beren izenean dituztenei ere dagokie, salbu eta haiek baimendu gabe erabili direla frogatzen denean.

f) Kontzesiorako epea bukatu baino lehen kontzesioa eskutik uztea edo zerbitzuak geldiaraztea, Administrazioak bere oniritzia eman gabe eta horren berri jakin gabe.

g) Arau-hauste larriak, Foru Lege honetako 25. artikuluan aurreikusirikoaren arabera, errudunak, haiek egin baino lehenagoko hamabi hilabeteetan, administrazio bideko behin betiko ebazpenaren bidez, zehapena hartu duenean artikuluko hartako letra berean tipifikaturiko beste arau-hausteagatik.

h) Kasuan kasuko ibilgailurako baimenduriko bidaiari kopurua baino bidaiari gehiago garraiatzea, soberan daudenak 100eko 30 edo gehiago direnean.

25. artikulua.

Arau-hauste larritzat jotzen dira:

a) Foru Lege honetan, hori garatzen duten xedapenetan edo Udalek lizentziak, kontzesioak edo baimenak emateko ezartzen dituzten xedapenetan aipaturikoez beste baldintzetan zerbitzuak ematea, salbu eta, 24. artikuluan xedaturikoarekin bat, oso arau-hauste larritzat jotzen denean.

b) Bidaiari-garraioko zerbitzu publikoak horretarako baimendurik ez dagoen pertsona fisiko edo juridikoaren bitartekaritza erabiliz ematea, Foru Lege honetako 24. artikuluko a) letran aurreikusirikoarekin bat, bitartekariari legokiokeen zehapena deustan galarazi gabe.

c) Ados jartzea baimendurik ez dagoen bitartekaritzan jardutean edo bestelako helburuetarako erabiltzen diren lokal edo saltoki publikoetan isilpeko zerbitzuetarako bileteak saltzean. Erantzukizuna lokala zertarako erabili eta horrexetako industria edo zerbitzuen titularrari dagokio.

d) Isilpeko zerbitzuetarako bileteak saltzea eta, orohar, baimendurik ez dauden zerbitzu edo jarduerekin bitartekari lanetan aritzea, bitartekaritzan aritzeko gaitasun-agiria eduki gabe, egon litekeen oso arau-hauste larria aintzat hartzea deustan galarazi gabe.

e) Tarifa araubidea ez betetzea.

f) Kasuan kasuko ibilgailurako baimenduriko bidaiari kopurua baino bidaiari gehiago garraiatzea, soberan daudenak 100eko 10 baino gehiago eta 100eko 30 baino gutxiago direnean.

g) Erabiltzaileek erreklamazioak aurkeztu behar dituzteneko nahitaezko liburua ez edukitzea, jendeak hori erabiltzeko eskubideari uko egitea edo eskubide hori oztopatzea, baita, ziorik gabe, liburu hartan jasotzen diren erreklamazio edo kezak Ikuskaritzari ezkutetzea edo berandu jakinaraztea ere.

h) Nahitaezko agirietan eskatzen diren datuetan huts edo gezur egitea.

i) Ziorik gabe, Administrazioak esku harturik, aldeztu aurretik ezarritako zerbitzuetako ordutegiak behin eta berriro ez betetzea.

j) Ikuskaritza zerbitzuen jarduketari uko egitea edo oztopatzea, 24. artikuluko d) letran aurreikusten diren gorabeherak gertatzen ez direnean.

k) Garraioa horretarako behar bezala baimendurik ez dauden garraiolari edo bitartekariekin kontratatzea, baldin eta, enpresaren kontratazioak, kasuan kasuko urtean edo aurrekoan, hama-bost zerbitzu egin badu guztira.

l) Administrazio kontzesio edo baimena emateko 27.5 artikuluan aurreikusten diren funtsezko baldintzak ez betetzea.

ll) Aurreko artikuluan aurreikusten den edozein arau-hauste, izaera, une edo inguruabarrengatik oso larritzat jo behar ez denean.

m) Arau-hauste arinak, Foru Lege honetako 26. artikuluan aurreikusirikoaren arabera, errudunak, haiek egin baino lehenagoko hamabi hilabeteetan, administrazio bideko behin betiko ebazpenaren bidez, zehapena hartu duenean artikuluko hartako letra berean tipifikaturiko beste arau-hausteagatik.

n) Aurreko idazatietan aipatzen ez den beste edozein arau-hauste, errepideko hiriko bidaiari-garraioari buruzko arauak, Foru Lege honetako oinarriekin bat, larritzat jotzen dutena.

26. artikulua.

Arau-hauste arintzat joko dira:

a) Aldez aurretik lizentzia, kontzesioa edo baimena behar duten garraioak halakorik eduki gabe egitea, baldin eta hura eskuratzeko betebeharrak betetzen badira.

b) Garraio publikoak egitea horietarako legezko gaitasuna frogatzen duten agiri formalak ibilgailuan eraman gabe.

c) Baimenduriko garraio motari buruz indarra duen arautegian eskatzen diren ezaugarriak ibilgailuan, ikusgai den tokian, ez eramatea, edo horiek ikustea zaila den moduan eramatea, baita ezaugarri horiek behar ez bezala erabiltzea ere, Foru Lege honetako 24. artikuluko c) letran aurreikusirikoarekin bat oso huts larrizat jo behar denean izan ezik.

d) Kasuan kasuko ibilgailurako baimenduriko bidaiari kopurua baino bidaiari gehiago garraiatzea, soberan daudenak 100eko 10 baino gutxiago direnean.

e) Jendeak ezagut ditzan, ikusgai egon behar duten tarifa koadro, egutegi, ordutegi, ohar eta beste ez edukitzea.

f) Instalazio finkoetan eta ibilgailuetan poliziako arau orokorrak ez betetzea, aurreko artikuluetan aurreikusirikoarekin bat, ez-betetze hori oso arauhauste larrizat edo larrizat jo behar denean izan ezik.

g) Erabiltzaileak gaizki tratatzea. Idazati honetan aipatzen den arau-haustea erabiltzaile eta kontsumitzaileen eskubideei buruzko arautegiak aipatzen dituen kasuak kontuan harturik zehatuko dira.

h) Erabiltzaileek Udalek hiriko bidaiari-garraio publikoko zerbitzua erabiltzeko ezartzen dituzten baldintzak ez betetzea.

i) 25. artikuluan aurreikusiriko edozein arauhauste, izaera, une edo inguruabarrengatik larrizat jo behar ez denean.

j) Aurreko idazatietan aipatzen ez den beste edozein arau-hauste, errepideko hiriko bidaiari-garraioari buruzko arauak, Foru Lege honetako hastapenekin bat, arintzat jotzen dutena.

27. artikulua.

1. Arau-hauste arinak gehienez ere 46.000 pezetako isunez zehatuko dira; larriak, 46.001 pezetatik 230.000 pezeta bitarteko isunez eta oso larriak 230.001 pezetatik 460.000 pezeta bitarteko isunez. Ezartzen den zehapenaren zenbatekoa, aurreko lerroaldeko mugen barruan, arau-haustearen gizarte eraginaren, asmo maltzuraren, eraginiko kaltearen, halakorik bada, eta eginiko arauhausteen kopuruaren arabera mailakatuko dira.

2. 24. artikuluko a), b) edo h) letretan aurreikusiriko arau-hausterik egiten bada, bidezko den diru-zehapena deustan galarazi gabe, garraioa

egiten deneko ibilgailua prezintatzen ahalko da eta hari dagokion baimena bertan bera uzten, baita jarduerak egiten direneko lokala ixten ere, bi kasuetan urtebetez, gehienez ere.

24. artikuluko e) letran aurreikusiriko arauhausteak, bidezko den diru bidezko zehapenez gain, bere baimena ezetzatzea ere ekarriko du.

3. Foru Lege honetako 24. artikuluan aurreikusiriko arau-hausteen erantzuleak artikuluko horretako idazati berean tipifikaturiko arau-hausteagatik, hori egin baino lehenagoko hamabi hilabeteetan, administrazio bidezko behin betiko ebazpenaren bidez zehatuak izan direnean, arau-hausteak jarduera edo zerbitzuaren emanaldia babesten zuen administrazio baimena aldi baterako, gehienez ere urtebetez, bertan behera uztea ere ekarriko du berarekin. Hamabi hilabete epe horretan eginiko hirugarren edo ondorengo arau-hausteez berarekin ekarriko dute baimena aldi baterako edo behin betikoz kentzea. Epe hori kontatzeko, baimena aldi baterako bertan behera utzia zelako, jarduera ezin burutu izan denekoaldiak edo zerbitzua ezin eman izan denekoak ez dira aintzakotzat hartuko.

Zerbitzua emateko baimen berezia eta bidaiari-garraio bereziko gaitasun-baimena batera behar direnean, idazati honetan aipatzen dena baimen bereziari dagokionez bakarrik utziko da bertan behera, salbu eta garraio bereziko baimena harekin batera eman denean. Kasu horretan biak utziko dira bertan behera.

4. 24. artikuluko a), b) edo h) letretan edo 25. artikuluko f) idazatian aurreikusirikoaren bat salatu behar diren arau-hausteak gertatzen direnean, ibilgailua berehalaxe geldiarazteko agindua ematen ahalko da, harik eta arau-haustearen zioak desagertu arte. Erabiltzaileek ahalik eta endredu gutxien paira ditzaten behar diren neurriak hartzen ahalko ditu Administrazioak.

5. Foru Lege honetan arauturiko administrazio kontzesio eta baimenen funtsezko baldintzat jotako dira:

a) Kontzesioei dagokienez:

– 6. artikuluan ezarritako betebeharre eustea.

– Zerbitzua burutzea.

– Zerbitzuak baimenduriko trafikoen arabera ematea.

– Zerbitzua kontzesio-hartzaileak berak ustiatzea, espreski baimenduriko lankidetzak kasuetan izan ezik.

– Ezarririko geralekuak errespetatzea, baita ibilbidea, egutegia, ordutegia eta tarifak ere, ezinbesteko kasuetan edo ustekabeen izan ezik.

– Kontratuan ezarri bezainbat abialdi egitea, baita hartan ezartzen diren gutxieneko ibilgailuak edukitzea ere. Ibilgailu horiek eskatzen diren baldintzak bete beharko dituzte.

b) Baimenei dagokionez:

– 6. artikuluan ezarririko betebeharrei eustea.

– Ibilgailuak bidaiariak garraitzeko duen ahalmen osoa kontratatzea.

– Zerbitzua baimenaren xede den ibilgailuaz ematea eta horrek eskatzen ahal diren teknika eta segurtasun baldintzak betetzea.

6. Foru Lege honen arabera ezartzen ahal diren zehapenak deustan galarazi gabe, administrazio kontzesio edo baimenen funtsezko baldintzak behin eta berriro ez betetzeak edo larriki ez betetzeak kontzesioa iraungitzea edo baimena bertan behera uztea ekartzen ahalko du, fidantza galdurik, hala bada.

28. artikulua.

24. artikuluko g) letran eta 25. artikuluko n) letran aurreikusten diren larriagotzeak kasu hauetan baizik ez dira aplikatzekoak izanen:

a) Arau-haustek administrazio kontzesio edo baimen beraren xede diren zerbitzuak ematen edo jarduerak burutzen ari direlarik egin direnean.

b) Arau-haustek zerbitzu edo jarduera horietarako gaitasun-agiria eduki gabe egin direnean, baldin eta haiek zerbitzu edo jarduera bera burutzean gertatu badira, hots, gaitasun-agiri bakarren babesean eman beharko zirenak.

c) Arau-haustek errudun berari egozten ahal zaizkionean, Foru Lege honetako 22. artikuluko 1. idazatik c) letrak aipatzen dituenen artetik.

29. artikulua.

Arau-hauste oso larriak, gertatu eta hiru urte pasata iraungiko dira; larriak, bi urte pasata eta arinak, urte bat pasata.

30. artikulua.

Zehapen prozedura ebazteko gehieneko epea urtebetekoa izanen da, hasten denetik aurrera.

Epe hori ebazpenik eman gabe bukatu, prozedura iraungitzat joko da eta artxibatu eginen dira haren jarduketak. Arau-haustea iraungi izan ez balitz, beste zehapen prozedura bati ekin lekiolke.

31. artikulua.

1. Foru Lege honetan aurreikusiriko zehapenak ezartzeko eskumena legez edo erregelamenduz eskuordeturik daukaten udal organoei dagokie.

Zehapen horiek ezarri eta betearazteko prozedura administrazio prozedurari buruzko araei jarraikiko zaie.

2. Behin betiko ebazpenaren bidez ezarririko diru bidezko zehapenak ordaintzea ezinbesteko baldintza izanen da oniritzia eman ahal izateko, baita hiriko garraioa egiteko gaitasun-agiriak eskualdatzeko administrazio baimena jasotzeko ere.

Xedapen gehigarriak

Lehena. Bestelako garraio motak.

Salgaien garraioari eta bidaiarien garraio pribatu osagarriari buruzko udal eskumenak hiriko zirkulazio eta trafikoan izan dezaketen eraginari buruzko gorabeheretara mugatuko dira.

Bigarrena. Nafarroako Garraioaren Arbitraje Batzordea.

Hiri garraiori dagokionez, azaroaren 18ko 511/1991 Foru Dekretuak eman zizkion eginkizunak izanen ditu Nafarroako Garraioaren Arbitraje Batzordeak.

Hirugarrena. Osagarritasuna.

Foru Lege honetan edo hori garatzeko emani-ko arauetan aurreikusirik ez dagoen guztian, Nafarroako Foru Komunitatean garatzen diren hiriarteko garraioetarako indarra duen araubide juridikoa izanen da hirikoei osagarritasunez aplikatzeko, haien izaera bereziarekin bateragarri den guztian.

Aplikatzekoak diren arau orokorrak errespetatuz, Udalek arau bereziak ezartzen ahalko dituzte hiriko bidaiari-garraioko zerbitzuei dagokionez.

Laugarrena. Zenbatekoak gaurkotzea.

Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari Foru Lege honetan ezarririko diru-zenbatekoak gaurkotzeko, diruaren eros-balioaren aldatetara egokitzeko, Nafarroako kontsumorako prezioen indizearen arabera.

Bosgarrena. Baimenduriko ikasleen eta langileen garraioko enpresen urteroko oroit-idazkia.

Baimenduriko langileen eta langileen garraioko enpresek urteroko oroit-idazkia aurkeztuko diote baimena eman dien entitateari, eginiko zerbitzuari

buruzkoa izanen dena. Oroit-idazki horrek gutxienez ere hauxe jaso beharko du: izandako istripuak, zerbitzuaren titularrak edo kontsumitzaile-elkarteek aurkezturiko erreklamazioak eta zerbitzua hobetzeko iradokizunak. Txostenari gehitu eginen zaio kontrataturiko aseguruaren kopia kautotua, egindako trafiko- eta segurtasun-kontrolak, toki-zergen ordainketa eta komenigarri jotzen diren bestelako dokumentuak.

Azken xedapenak

Lehena. Arauak emateko gaikuntza.

Nafarroako Gobernuak Foru Lege hau garatu eta betearazteko behar diren xedapenak emanen ditu.

Bigarrena. Indarra hartzea.

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Iruñerriko bidaiari-garraio publikoari buruzko Foru Legea

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1998ko maiatzaren 20an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 20.2 artikuluan ezarritakoa betez, Iruñerriko bidaiari-garraio publikoari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Iruñerriko bidaiari-garraio publikoari buruzko Foru Legea

ZIOEN AZALPENEA

Gaur egun, Iruñak eta inguruko udalerriek hainbat gune konpartitzen dituzte, baita interes eta arazo franko ere; bidaiarien garraio erregularrak, esate baterako.

Garraiorako eskubidea, hau da kalitate eta prezio egokian hiritarren mugikortasuna bermatzea, aginte publikoen betebeharra da, eta arazo horri taxuzko irtenbidea ematen saiatu beharra dute.

Dena den, garraio arloko eskumenen banaketa dela eta, dagokigun eskualdeko bidaiari-garraio publiko batzuk hiri barrukoak dira eta beste batzuk hiriartekoak. Lehenbizikoak kudeatzeko eskumena kasuan kasuko udalei dagokie eta bigarrenak kudeatzeko Foru Komunitateko Administrazioari.

Nafarroako Foru Komunitateko hiriko garraioaren arautegia ezarri delarik, orain udalerrietako mugetatik kanporako bidaiarien garraio kolektiboa antolatzeko araubide berariazkoa finkatu behar da eta, horrekin batera, kasuan kasuko eskumenak, antolamendu administratiboa, egungo egoeratik araubide berriak ekarri duenerako igarobidea eta planteatzen diren edo arautu behar diren gainerako alderdiak zehaztu; hemen aurreikusita ez dagoen orotan, Nafarroako Foru Komunitateko Errepideko Hiriko Garraioa arautzen duen aipatu Foru Legean, hiriko garraiorako araubide orokorrari dagokionean, ezarritakoa aplikatuko da.

Beste autonomi erkidego batzuetan izandako esperientziak eta arazoa konpontzeko aukerabideak kontuan hartu badira ere, Foru Lege honetan, zerbitzuaren prestazioaren beharrak ikusita, egokitzen hartu dugun bidea garatu da, eskumena

duen administrazio publikoek egun bere gain hartu dezaketena baita. Hori horrela, zerbitzuaren kudeaketa Iruñerriko Mankomunitatearen esku uzteko aukera eskaini da, beste zerbitzu publiko batzuetan gaur arte erakutsi duen gaitasuna kontuan hartuz.

Kudeaketa hori, hortaz, nortasun juridiko propioa eta jarduteko gaitasuna duen toki entitate bati esleitu zaio. Udalen autonomia, nolahi ere, aski bermatuta geldituko da, udalek mankomunitatean duten partaidetzaren bitartez.

Halaber, biziguneen jarraipen etengabea ikusita, eta Foru Lege honetako garraio zerbitzuaren kudeaketa bateratua egin ahal izateko araubide berariazko hau ezartzea eskatzen duten gainerako inguruabarrak kontuan harturik, bertan mugatzen den eskualdeko garraioa hirikitzen hartu da, horrela gaindituko baita hiriarteko eta hiriko garraioaren arteko eskumenen mugapena.

Foru Lege hau eman da Nafarroatik atera gabe egiten den garraioaren arloan Foru Komunitateak duen erabateko eskumenaz baliaturik, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko 12/1982 Lege Organikoaren 49.1.f. artikulua indarrez.

I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea.

Foru Lege honen xedea da 3. artikuluan zehazten den eremutik atera gabe egiten den erabiltzaile guztientzako bidaiari-garraio publiko erregularrak, finkoa nola aldi baterakoa, arautzea.

2. artikulua. Garraioaren izaera.

Foru Lege honetan arautzen den garraioa hiriko garraiotzat hartu da.

3. artikulua. Aplikazio eremua.

1. Foru Lege honek arautzen duen hiriko garraioaren aplikazio eremua honako udalerrak hauek osatuko dute:

– Antsoain.

– Aranguren: Mutiloabeiti eta Mutiloagoiti biziguneak, hain zuzen.

– Barañain.

– Beriain.

– Berriobeiti, Aitzoain eta Artikako kontzejuen lurraldea, hain zuzen.

– Berriozar.

– Burlata.

– Zizur, Zizur Txikiko Kontzejuaren lurraldea, hain zuzen.

– Eguesibar, Mendillorri, Gorraitz eta Olazko Kontzejua hain zuzen.

– Ezkabarte: Arre eta Orikaingo kontzejuak, hain zuzen.

– Galar: Cordovillako kontzejuak, hain zuzen.

– Uharte.

– Elortzibar-Noain, Noaingo bizigunea hain zuzen.

– Orkoien.

– Iruña.

– Atarrabia.

– Zizur Nagusia.

2. Arestiko idazatian mugatu den hasiera bateko eremua Nafarroako Gobernuak eman beharreko foru dekretu bidez aldatu ahalko da, zerbitzuaren entitate kudeatzaileak eta toki entitate interesatuak proposaturik.

II. KAPITULUA Entitate titularra

4. artikulua. Definizioa.

1. Foru Lege honek arautzen duen hiriko garraio publikoaren zerbitzua ematen duen entitateak honetantxe adierazitakoari jarraikiz egin beharko du. Foru Lege honek esleitzen dizkion eskurantzak kudeatzeko erabateko gaitasuna eta nortasun juridiko propioa izanen ditu eta haren kudeaketan 3. artikuluan adierazitako eremuko udalek parte hartu beharko dute.

2. Iruñerriko Mankomunitateari esleitzen zaizkio Foru Lege honetan biltzen diren hiriko garraio publikoaren eskumenak, beti ere 3. artikuluan adierazi den eremuko udalerrri guzti-guztiek Mankomunitatean integraturik dirauten bitartean.

Iruñerriko hiriko garraio publikoaren zerbitzua erabiltzeko udalerriek izanen duten integrazio epea 9 urtekoa izanen da, gutxienez.

3. Integrazio hori sei hilabeteko epearen barruan egin beharko da, Foru Lege honek indarra hartzen duenetik aurrera.

4. Mankomunitateak Foru Lege honen xede diren garraio-eskumenak hartuko ditu 5. artikuluan aipaturiko Garraio Plana onetsi ondoren.

5. Udalerrien integrazioaren ondoren sei hilabeteko epea igarotzen baldin bada Garraioaren Plana onetsi gabe, Foru Komunitateko Administrazioak bestelako kudeaketa-modua sustatuko du urtebeteko beste epe batean.

5. artikulua. Eskumen-araubidea.

1. Nafarroako Gobernuari dagokio Iruñerriko Hiriko Garraioaren urte anitzeko Plana onestea. Plan hori zerbitzuaren titular den entitateak sustatuko du Nafarroako Gobernuaren aurrean.

2. Nafarroako Gobernuak Garraio Planean Foru Lege honen xede den zerbitzua ematea arautuko duten ildo nagusiak zehaztuko ditu, baita programazio eta plangintzako oinarritzko printzipioak ere; eta, gutxienez, honako gai zehatz hauek ukituko ditu:

a) Garraio-eskaintzaren oinarritzko printzipioak.

b) Zerbitzuen plangintza.

c) Inbertsioen programazioa.

d) Zerbitzuak kudeatzeko kontratuak arautu beharko lituzketen oinarritzko printzipioak, zerbitzuaren kudeaketa aldatzea edo horretarako beste esleipena egitea beharrezkoa izanen balitz.

e) Plana betetzearen ebaluazio ekonomiko eta finantzariora.

f) Tarifen markoa eta tarifen dirusarreraren bitartez kostu osotik zenbat estaliko den zehaztea.

g) Planaren helburuak lortu ahal izateko zerbitzuaren titular den entitateari zer aurrekontu-baliabide eta dirulaguntza esleitu behar zaion zehaztea.

3. Laugarren artikulua aipatzen duen entitateari dagokio Foru Lege honek arautzen duen zerbitzuaren titularitatea. Entitate horrek Iruñerriko Hiriko Garraioaren Planari jarraituz eman beharko du aipaturiko zerbitzua.

4. Hiriko Garraioaren Plana egiteko "Iruñerriko Hiriko Garraioaren Batzordea" eratuko da. Nafarroako Gobernuaren ordezkariak eta zerbitzuaren titular den entitatearenek osatuta egonen da, eta bi aldeetan ordezkari-kopurua berbera izanen da. Batzorde horretan sartu ahal izanen dira kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteetako ordezkariak eta kontzesio hartzaile den/diren enpresaren/enpresen ordezkariak. Batzordeak Planaren Proiektua eta beronen aldaketak idatzi beharko ditu eta testua entitate titularrari bidali beharko

dio, zeinak testua Nafarroako Gobernuari aurkeztuko baitio. Halaber, Planaren aplikazioaren jarraipena eginen du.

5. Iruñerriko Hiriko Garraioaren Batzordearen bidez, ukituriko gainontzeko entitateekin koordinazio-lanak eginen dira gurpilezko trafikoa antolatzeari dagokionean, beste garraibideekiko harremanei dagokienean, hirigintza-antolamenduari dagokionean, udal hirigintza-planeamenduari loturiko garraio-azpiegituren taxuketari dagokionean eta baterako jarduketak eskatzen dituen beste edozein gaitan. Egoki denean, ukituriko udalerrietako ordezkariak lan horietan parte hartuko dute.

6. artikulua. Zerbitzua emateko modua.

Indarrean dagoen legedian aurreikusitako prozeduretako edozeinen bitartez eman ahalko da zerbitzua.

III. KAPITULUA Zerbitzuaren finantzazioa

7. artikulua. Baliabideak.

1. Foru Lege honetan zehazten den hiri barruko garraio publikoaren finantzazioak, besteak beste, honako dirusarrera hauek izan ahalko ditu:

a) Zerbitzua ustiatzearen ondoriozko dirusarrerak.

b) Foru Komunitateko Administrazioetik, Estatu-ko Administrazioetik zein Europako Batasuneko erakundeetatik jasotako dirusarrerak, nolana hikoak direla.

c) Lege honen aplikazio eremuaren barruko udalerrietatik jasotzen diren dirusarrerak.

d) Legearen aldetik, bidezko diren gainerakoak.

8. artikulua. Finantzaziorako ekarpenak.

1. Nafarroako Gobernuak eta Foru Lege honen aplikazio-eremuan sarturiko Udalerriek, Hiriko Garraioaren Planari jarraituz finkatzen diren ekarpenei aurre egin ahal izateko, behar adinako zenbatekoak aurreikusten dituzten kontusailak sartuko dituzte euren aurrekontuetan.

Udalerriek baimena eman ahal izanzen diote Mankomunitateari Nafarroako Gobernuari hauxe eska diezaion: Foru Lege honetan araututako zerbitzua finantzatu ahal izateko Udalerriek Mankomunitateari eman behar dizkioten kopuruak ordain ditzan, Nafarroako Ogasun Publikoaren Zergetan Parte Hartzeko Fondoaren kargura.

2. Garraio Plana ez baldin bada aldatzen edo gaurkotzen, eta kasu horretarako aurreikuspen

berezirik ez baldin badu, automatikoki beste ekitaldi ekonomiko baterako luzatuko da, Nafarroako kontsumorako prezioen indizeari dagokion gehikuntzarekin.

Xedapen gehigarriak

Lehena. Sistema horren bideragarritasuna eremu txikiago batean.

4. artikuluan xedatutakoa gorabehera, Mankomunitatean udalerrri guztiak integratzen ez badira edo baten batek Mankomunitatetik ateratzea erabakitzen badu, Iruñerriko Hiriko Garraioaren Plana aldatu beharko litzateke, aztertzeko Foru Lege honetan araututako hiriko garraio publikoaren sistema gelditzen diren lurraldeetan kudeatzea bideragarria ote den.

Nafarroako Gobernuak erabakiko balu sistema hori gelditzen den lurraldean ez dela bideragarria, urtebeteko epean beste kudeaketa-modu bat sustatu beharko luke.

Bigarrena. Ukituriko kontzesioak.

Foru Lege honetan xedatutakoaren ondorioz, 3. artikuluan mugatutako eremutik atera gabe aritzen diren egungo kontzesioak ukituak izanen dira, honakoak alegia:

– Iruñeko hiriko garraio kolektiboa.

– Zizur-Iruña, Gazolatz eta Barañainerako adarrak barne.

– Orikain-Iruña.

– Iruña-Mutiloabeiti.

– Iruña-Uharte, Sarrigurenen barna.

Halaber, ukituak dira Añorbe-Iruña, Belaskoain-Iruña eta Etxaleku-Iruña kontzesioak, 3. artikuluan mugatutako eremuaren barruko ibilbideari dagokionez.

Hirugarrena. Lehen Garraio Plana.

Iruñerriko Hiriko Garraioaren lehen Plana Nafarroako Gobernuak eta Iruñerriko Mankomunitateko ordezkariak osatutako Batzorde batek prestatuko du, 5.4 artikuluan xedaturikoaren arabera.

Plana egina dagoenean, Iruñerriko Mankomunitateak Nafarroako Gobernuaren aurrean sustatuko du.

Xedapen iragankorrak

Lehena. Ukituriko kontzesioen araubide iragankorra.

6. artikuluan xedatutakoa gorabehera, bigarren xedapen gehigarrian adierazitako kontzesioek bere horretan segituko dute.

Mankomunitatea kudeatzen hasi baino lehen, edo Garraio Plana onetsi ondorengo urtebeteko epean, egungo kontzesio-hartzaileek kontzesioak titular bakar baten esku utziko balituzte, horetarako beharrezkoak diren jarduketak eginez, Mankomunitateak kontzesiorako beste epe bat finkatu ahalko luke, hamabost urtetik beherakoa beti ere.

Zerbitzuaren kudeaketa Mankomunitateak bere gain hartu ondoren, eta aurreko idazatian aipatu batasuna egin ez baldin bada, hark aldaketak ezarri ahalko ditu Foru Lege honetan zehazturiko eremuan garraio zerbitzua ematen ari diren enpresen kontzesioak ustiatzeko baldintzetan, programak eta koordinazio neurriak errespetatzen direla bermatzeko. Beti ere, dagoen oreka ekonomikoa mantendu egingen da.

Bigarrena. Aurretiko eskumenak mantentzea.

Mankomunitateak Foru Lege honetan araututako garraio arloko eskumenak bere gain hartu

bitartean, Foru Legeak indarra hartu aurretik zegoen eskumen banaketak bere horretan segituko du, inolako aldaketarik gabe.

Azken xedapenak

Lehena. Ordezko arauak.

Foru Lege honetan arautzen den bidaiari-garraio erregularrari dagokionez, bertan xedatuta ez dagoen orotan Errepideko Hiri barruko Garraio Publikoa arautzen duen Foru Legean ezarritakoari jarraituko zaio.

Bigarrena. Arauak emateko gaikuntza.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio Foru Lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.

Hirugarrena. Indarra hartzea.

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Legea, jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzko otsailaren 27ko 2/1997 Foru Legea aldatzen duena

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1998ko maiatzaren 20an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 20.2 artikuluan ezarritakoa betez, jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzko otsailaren 27ko 2/1997 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Legea, jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzko otsailaren 27ko 2/1997 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Otsailaren 27ko 2/1997 Foru Legea aldarrikatzearekin batera Nafarroako toki entitateendako laguntza publikoei buruz beste arauteria bat ezarri zen, industria-lorzorua sustatzeko, garai hartako inguruabar eta beharretara egokituz.

Foru Lege horretan ezartzen diren laguntzak, gehienbat, ituntzen ahal diren kreditu edo maileguen korrituen balioak diren dirulaguntzak dira. Dirulaguntzaren kalkuluaren ondorioetarako, haren puxka nagusia obren guztizko kostuaren % 50 izanen da, enpresa eskatzaileek eta proiektua sustatzen duen udalak gainerakoa finantza dezaten.

1997an laguntzetarako lehenbizikoz dei egin ondoren, ohartarazi da, Foru Lege hartako 4. artikuluko b) leerroaldearen gaur egungo idazketa, onarturiko proiektuei aplikatzen ahal zaien dirulaguntza ezartzeari dagokionez, sobera nahasia dela ulertarazterakoan eta zehaztugabea aplikatzerakoan. Izan ere, dirulaguntzaren zenbatekoa unean-unean dagoen egoeraren edo erreferentziako korrituaren balioaren arabera kalkulatu beharra dago.

Aipaturiko aferengatik, komeni da 2/97 Foru Legea aldatzea, 4. artikuluko b) leerroaldari beste idazketa bat eman eta dirulaguntzaren zenbatekoa modurik zuzenekoenean eta zehatzenean ezarri ahal izateko. Hori dela-eta, ehuneko kopuru

jakin bat finkatuko da obren guztizko kostuarekiko eta, hala bada, lurra erosteko kostuarekiko dirulaguntza gisa.

Halaber, orain ezartzen den dirulaguntzaren zenbatekoa iragan ekitaldiko lehenbiziko deialdian ebatzirik espedienteetan atera dena baino gehiago bada, komenigarritzat jotzen da ebatzirik dauden kasuetan Foru Legearen aldaketa atzera-eraginez aplikatzea, espediente horiei dirulaguntza osagarriak eman ahal izateko, hain zuzen ere orain onartzen den dirulaguntzaren ehunekoarekin parekatzeko. Afera hori Legeko Xedapen Iragankor berrian biltzen da.

Bestaldetik, Foru Legeko Xedapen Gehigarriak ezartzen du posible dela dirulaguntzen onuradun diren toki entitateek kapital publikoko elkarteekin batera poligonoaren sustapena erabakitzea, elkarre horiek poligonoak eraginkortasunez kudeatu eta burutzeko osatuak izan badira. Horiexei eskualdatuko zaizkie horretarako toki entitateari emaniko onurak.

Navarra de Suelo Industrial, S.A. Foru Komunitateko kapital publikoko elkarteak 1997ko uztailean osatu zenez geroztik izaniko esperientziagatik, komeni da Xedapen Gehigarria aldatzea, elkarte horrek zuzenean laguntzak eskatu eta hartu ahal ditzan, baldin eta alde zuzenetik kasuan kasuko toki entitatearekin lankidetzan hitzarmen bat izenpetua badu eta horretan poligonoa sustatu eta burutzea elkarte publiko horri esleitzen bazaio.

1. artikulua. jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzko otsailaren 27ko 2/1997 Foru Legeko 4. eta 5. artikulua aldatzen dira. Honelaxe utziko dira:

“4. artikulua. Onura aplikagarriak.

Honakoak dira Nafarroako Gobernuaren laguntzak, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuaren bidez, herri mailako jarduera ekonomikoetarako poligonoak sustatzen dituzten Nafarroako toki entitateei emanen dizkienak:

a) 100eko 70ko dirulaguntza, exekuzio unitatea erabat garatzeko behar diren proiektuen kosturako, beti ere Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailearen 4ko 10/1994 Foru Legeko 89, 98 eta 99. artikuluetan arautua dagoenaren arabera.

b) Fondo galdurako dirulaguntza, urbanizatzeko obren eta haien zuzendaritza teknikoaren eta, hala bada, behar diren lurak erosteko kostuaren ehuneko hogeikoa (% 20koa).

c) Poligonoak sortzeko helburuz egindako lur-zoru aldaketaren ondorioz toki entitateari aplikatzen zaion Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren kuota-ren % 95eko hoberia, baita toki entitateek bertan kokatzen diren enpresei egiten dizkieten gaine-koak.”

“5. artikulua. Gaurko udal poligonoetako azpiegituren eskasiak eta mentsak.

Arestiko artikuluko a) eta b) letretan aipatutako laguntzak aplikatzen ahal dira egun kontsolidaturik dauden udal poligonoetako azpiegitura eta urbanizazio mailako eskasiak eta mentsak ezartzeko urbanizazio proiektu eta obretan ere; kasu horietan, hobekuntzarako azpiegituren kostuaren ehuneko hogeikoa (% 20koa) izanen da dirulaguntza.

Udal poligono kontsolidatuak izanen dira toki entitate batek sustatzen dituenak, lurzatiaren azalera osoaren % 50 gutxienez industriek edota jarduera ekonomikoek hartua baldin bada.”

2. artikulua. Otsailaren 27ko 2/1997 Foru Legeko Xedapen Iragankorra aldatzen da. Hone-laxe utziko da:

“Xedapen iragankorra

Aurreko deialdiak zirela-eta hasiera batez Foru Lege honetan ezarriko laguntzen onuradun izan diren toki entitateek aukera izanen dute, Foru Lege honek indarra hartu eta hurrengo laguntza deialdian eskabidea aurkeztuz, laguntza osagarriak hartzeko, gozatu behar dituzten laguntza guztiak orain ezartzen diren laguntzekin pareka daitezten eta dirulaguntzaren ehuneko berak izan ditzaten.

Halaber, toki entitateek Foru Lege honetan ezarriko onurak izaten ahalko dituzte, ekainaren 30eko 9/1993 Foru Legeak indarra hartu eta gero udalen industri loruzorua sustatzeko ekintzarik burutu badute eta otsailaren 27ko 2/1997 Foru

Legeak indarra hartu baino lehen proiektu eta obretan inbertsiorik egin badute.

Jarduketa horiek Foru Lege honetan ezarriko betebeharrak eta gainerako baldintzak bete beharko dituzte eta toki entitate horiek, eskabidea aurkeztuta, parte hartu beharko dute, beraz, Foru Lege honek indarra hartu eta hurrengo laguntza deialdian.”

3. artikulua. Otsailaren 27ko 2/1997 Foru Legeko Xedapen Gehigarria aldatu eta haren ordezkia honakoa ezartzen da:

“Xedapen gehigarria

“Navarra de Suelo Industrial, S.A.” Foru Komunitateko kapital publikoko elkarteak Foru Lege honetan ezarriko dauden laguntzak zuzenean eskatu eta hartzen ahalko ditu, bertan ezarriko baldintza eta betebeharrak, baldin eta, eskatu baino lehen, kasuan kasuko toki entitatearekin lankidetzan hitzarmen bat itundu badu eta horretan herrietan jarduera ekonomikoetako poligonoa sustatu eta burutzea esleitu bazaio.

Kasu honetan ez da aplikatzekoa izanen 3. artikuluko f) idazatian eta 8. artikuluko 1. puntuko bigarren lerroaldean Toki Administrazioeko Departamentuak toki entitatearen gaitasun ekonomikoari buruz luzatu beharreko txostenaz aipatzen den betebeharra.

Halaber, Foru Lege honetan aurreikusitako laguntzen onuradun diren toki entitateek toki entitate horietako edo Nafarroako Foru Komunitateko kapital publikoko elkarteekin edo haien menpeko bestelako entitateekin, poligono horiek eraginkortasunez kudeatzen eta burutzen laguntzeko osaturikoekin, hain zuzen, ituntzen ahalko dute, laguntzak hartu ondoren, herrietan jarduera ekonomikoetako poligonoak sustatu eta burutzea, eta horretarako emaniko onurak haiei eskualdatuko zaizkie.”

Azken xedapena

Foru Lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den egunean berean.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 136. artikulua aldatzen duena

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

«Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 136. artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu zuen. Nafarroako Parlamentuak, 1998ko maiatzaren 20an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Foru Lege proposamena bazter uztea.

Proposamen hori 1998ko apirilaren 14ko 25 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apestegui

E saila:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren jokaera gaitzesten da, zenbait sendagai Gizarte Segurantzatik kanpo uzteari buruzko erabakiak ez betetzeagatik

OSOKO BILKURAK BAZTERTUA

Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak hurrengo mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren jokaera gaitzesten da, zenbait sendagai Gizarte Segurantzatik kanpo uzteari buruzko erabakiak ez betetzeagatik". Biltzarrak, 1998ko maiatzaren 20an egindako Osoko Bilkuran, mozioa baztertu

zuen. Mozio hori 1998ko apirilaren 16ko 26 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ebazpena. Horren bidez, Foru Komunitateko Gobernua premiatzen da LORAFNAko 29. artikulua alda dezan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Biltzarrak, 1998ko maiatzaren 20an egindako Osoko Bilkuran, hurrengo ebazpena onetsi zuen: "Ebazpena. Horren bidez, Foru Komunitateko Gobernua premiatzen da LORAFNAko 29. artikulua alda dezan". Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ebazpena. Horren bidez, Foru Komunitateko Gobernua premiatzen da LORAFNAko 29. artikulua alda dezan

Nafarroako Parlamentuak Foru Komunitateko Gobernua premiatzen du LORAFNAko 29. artikulua erreformatzeko ekinbidea alda dezan, halako moldez non berak egin duenaren 3. eta 4. idazatiak ordeztuko dituen, hauxe jartzeko: izangaia gehien-go soilez hautatu ahal izanen da, gehien-go osoa eskatzen duten botazioetan hautatua izan ez bada.

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte zerbitzuen alorreko kontzertuak arau ditzan

OSOKO BILKURAK BAZTERTUA

M^a Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak hurrengo mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte zerbitzuen alorreko kontzertuak arau ditzan". Biltzarrak, 1998ko maiatzaren 20an egindako Osoko Bilkuran, mozioa baztertu

zuen. Mozio hori 1998ko apirilaren 29ko 29 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait zerga-aldaketa egin dezan

OSOKO BILKURAK BAZTERTUA

«Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak hurrengo mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait zerga-aldaketa egin dezan". Biltzarrak, 1998ko maiatzaren 20an egindako Osoko Bilkuran, mozioa baztertu zuen. Mozio hori 1998ko

maiatzaren 6ko 31 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak eskatzen du Itoitz eta Nafarroako Ubideko obrei legezko estaldura emateko bitartekoak martxan jar daitezen

OSOKO BILKURAK BAZTERTUA

«Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak hurrengo mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak eskatzen du Itoitz eta Nafarroako Ubideko obrei legezko estaldura emateko bitartekoak martxan jar daitezen". Biltzarrak, 1998ko maiatzaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, mozioa baztertu

zuen. Mozio hori 1998ko maiatzaren 14ko 33 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 25esan

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernuak premiatzen da “Gutxien hizkuntzei buruzko Europako Gutuna” berrets dezan eta Nafarroako Gobernuak premiatzen da azter dezan Euskarari buruzko Legearen egokitzapena Gutun horrekiko

OSOKO BILKURAK BAZTERTUA

«Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak hurrengo mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernuak premiatzen da “Gutxien hizkuntzei buruzko Europako Gutuna” berrets dezan eta Nafarroako Gobernuak premiatzen da azter dezan Euskarari buruzko Legearen egokitzapena Gutun horrekiko”.

Biltzarrak, 1998ko maiatzaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, mozioa baztertu zuen. Mozio hori 1998ko maiatzaren 14ko 33 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako Administrazio Publikoetako langileen bateraezintasun araubidea aldatzeko Foru Lege proiektu bat bidal dezan

OSOKO BILKURAK BAZTERTUA

«Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak hurrengo mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako Administrazio Publikoetako langileen bateraezintasun araubidea aldatzeko Foru Lege proiektu bat bidal dezan”. Biltzarrak, 1998ko maiatzaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, mozioa

baztertu zuen. Mozio hori 1998ko maiatzaren 14ko 33 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da ahalik eta lasterren arau dezan LOGSEk ezarritako batxiler-maila eta lanbide-modulu berrien finantzaketa

OSOKO BILKURAK BAZTERTUA

«Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak hurrengo mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da ahalik eta lasterren arau dezan LOGSEk ezarritako batxiler-maila eta lanbide-modulu berrien finantzaketa”. Biltzarrak, 1998ko maiatzaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, mozioa baz-

tertu zuen. Mozio hori 1998ko maiatzaren 14ko 33 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatu da zenbait jarduketa burutzera, Alzheimer gaixotasunak ukitutakoei arreta orokorra emateko

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Osasun Batzordeak, 1998ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, hurrengo ebazpena onetsi zuen: "Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatu da zenbait jarduketa burutzera, Alzheimer gaixotasunak ukitutakoei arreta orokorra emateko". Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatu da zenbait jarduketa burutzera, Alzheimer gaixotasunak ukitutakoei arreta orokorra emateko

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatu du sei hilabeteko epean egoeraren azterketa, jarduteko zuzentarauak eta koordinazio-proposamenak burutu ditzan, Nafarroan Alzheimer gaixotasunak ukitutakoei arreta orokorra ematearen baitan, gizarte eta osasun esparruko jarduketan barruan.

Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sendagaien gaur egungo finantzaketa baldintza guztiak berma ditzan

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Osasun Batzordeak, 1998ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, hurrengo ebazpena onetsi zuen: "Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sendagaien gaur egungo finantzaketa baldintza guztiak berma ditzan". Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sendagaien gaur egungo finantzaketa baldintza guztiak berma ditzan

Nafarroako Gobernuak Osasunbideako sendagileak askatasunez errezetatutako sendagaien gaur egungo finantzaketa baldintza guztiak bermatuko ditu (dohainik pentsionistentzat eta gaur egun onuradun diren beste talde batzuentzat, eta % 40ko ekarpena besteentzat)

Horrela, Nafarroako Gobernuak behar diren neurriak hartuko ditu dirua itzultzeko, hain zuzen ere, gaur egun errezetatzen diren sendagaien

dagokien diru-laguntzak kontutan hartuta eta baita zenbait farmazi espezialitate kanpo utzi dituen zerrenda berria ere kontutan hartuta; hala ere, neurri hori indarrean sartu aurretik Parlamentuak hala erabaki beharko du.

Nafarroako Gobernuak farmazi espezialitate generikoak ematea bultzatuko du modu erreal eta efektiboan, eta 1998ko urte bukaerarako lortzen saiatuko den helburua ondokoa da: denetara ematen diren ontzien % 4 ontzi generikoak izatea (1997ko urte bukaeran % 2,1 ziren), bereziki, erasotzaileak deiturikoetan.

Nafarroako Gobernuak behar diren neurriak hartuko ditu, pixkanaka, sendagaiak agindu eta emateko sistema (dosi bakarra) ezar dadin.

Nafarroako Gobernuak programa trinkoak garatuko ditu osasun-hezkuntza espezifikoak emateko gure Foru Komunitateko biztanleei, sendagaiak modu arrazionalen erabil ditzaten, eta gure herritarrengan ohitura osasuntsuak sustatzeko.

Nafarroako Gobernuak Osasunbidean sendagaiak emateko mekanismoen kalitatea bultzatuko du, eta erabat baztertuko du farmazi gastuetan aurrezteagatiko pizgarriak, hori ez baita etikoki

onargarria eta kontrako eragina baitu neurri hori jasaten duten gaixoengan.

Nafarroako Gobernuak Osasunbideako profe-

sionalen formakuntza antolatuko du modu iraunkorrean, hain zuzen ere, sendagaien erabilera arrazionalerako osasun politikarekin zerikusia duen formakuntza.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sendagaiei buruz hartutako erabakiak bete ditzan

OSASUN BATZORDEAK BAZTERTUA

Xabier Vélez Medrano Foru Parlamentari jaunak hurrengo mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sendagaiei buruz hartutako erabakiak bete ditzan". Osasun Batzordeak, 1998ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, mozioa baztertu zuen.

Mozio hori 1998ko apirilaren 16ko 26 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sendagaiei buruz hartutako erabakiak bete ditzan

ATZERA BIDALITAKO MOZIOA

Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak hurrengo mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sendagaiei buruz hartutako erabakiak bete ditzan". Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 1998ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, mozioa atzera bidali

duela jakitun dagoela adieraztea erabaki zuen. Mozio hori 1998ko apirilaren 16ko 26 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat 5.900 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 135 » .</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 170 » .</p>	<p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta 12, 3</p> <p>31002 IRUÑA</p>
--	---